


Euskal Autonomia Erkidegoko saltoki handietako eta elikadura-kateetako salmentak % 0,6 jaitsi dira 2020ko urtarrilean

Aurreko hilabetearekiko % 0,2 igo dira

2020ko urtarrilean, Euskal Autonomia Erkidegoko saltoki handietako eta elikadura-kateetako salmentek % 0,6ko urtetik urterako jaitsiera izan dute prezio konstanteetan, lan-egutegiaren termino homogeneoetan, Eustatek landutako datuen arabera. Termino desestazionalizatueta, 2019ko abenduko datuekin alderatuta, % 0,2 egin dute gora salmentek.

Euskal AEko azalera handi eta elikadura kate handietako merkataritzaren indizearen urte-arte aldakuntza-tasa. (%)



Iturria: Eustat. Merkataritza indizea azalera handietan eta elikadura kate handietan-AHEK

Elikagaien salmentek saltoki handietan eta elikadura-kateetan % 0,3ko igoera izan dute, eta gainerako salgaiei dagozkienek % 2,0ko jaitsiera izan dute aurreko urteko hilabete berarekin alderatuta, egutegi-efektuak atera ondoren.

Lurraldeka, iazko hilabete berarekin alderatuta, Araban % 0,2ko igoera izan da, Bizkaian indizeak ez du inolako aldaketarik izan (% 0,0), eta Gipuzkoan, berriz, % 2,1 egin du behera; hori guztia prezio konstanteetan eta egutegi-efektuetatik zuzenduta.

Aurreko hilabetearekin alderatuta (2019ko abendua), elikadura-salmentak % 0,7 igo dira prezio konstanteetan eta termino desestazionalizatueta, eta gainerako produktuenak % 0,9 murritzuta dira.

Euskal Autonomia Erkidegoko saltoki handietan eta elikadura-kateetan enplegatutako langileak % 1,5 igo dira, aurreko urteko hilabete berarekin alderatuta, eta % 0,8, berriz, aurreko hilabetearekin alderatuta, termino desestazionalizatueta.

Euskal AEko azalera handi eta elikadura kate handietako merkataritzaren indizea. Urte arteko eta hile arteko aldakuntza-tasa. Urtarrila. 2020

	PREZIO FINKOAK		
	m / m-12	m / m-1	A (m) / A (m-12)
INDIZE OROKORRA lurralde historikoaren arabera			
Euskal AE	-0,6	0,2	-0,6
Araba/Álava	0,2	-0,8	0,2
Bizkaia	0,0	0,0	0,0
Gipuzkoa	-2,1	0,9	-2,1
INDIZE OROKORRA sektorearen arabera			
Elikagaiak	0,3	0,7	0,3
Beste produktuak	-2,0	-0,9	-2,0
ENPLEGU INDIZEA			
Euskal AE	1,5	0,8	1,5

m / m-12 Urte arteko aldakuntza. Egutegiaren eragina zuzendutako datuak

m / m-1 Hile arteko aldakuntza. Datu desestazionalizatuak

A(m)/A(m-12) Orainarteko urte arteko aldakuntza. Egutegiaren eragina zuzendutako datuak

Iturria: Eustat. Merkataritza indizea azalera handietan eta elikadura kate handietan-AHEK

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia kalea, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel.: 945 01 75 62